

¡JESÚS KURUTZETUA!

Guregatikan igo zenduen
Kurutze pisu gogorra,
Busti zediyen pekatuaren
Ibai zakar ta agorra;
Nai izanikan Jaungoiko Aitak
Iltzia zuk gure zorra,
Achi zenduen Kalbariyoko
Mendi galanten tontorra.

Judas paltsuak diru goseak
Zinduzen maltzurki saldu,
Illik, zindezen pekatuaren
Jabe egiñik azaldu;
Zuri zor zizun amoriyua
Zitzayon oso itzaldu,
Eta zañetan zuben odola
Itsas ur gisa gezaldu.

Zure bizitza utzi zenduen
Borrerotzarren eskuan,
Mundu nastua arki zalako
Biziro trantze estuan;
Zure gorputza busti zenduen
Izerdi odolezkuan,
Gero ill-otza utzi zinduzten
Birjiña Amaren besuan.

Iltzez jostia aski etzala
Agai luze-dun sardiak,
Sar zizkitzuten etsai pozoitsu
Zital ajolik gabiak;
Purrakaturik utzi zinduzen
Pekatuaren katiak,
Zabal zitezen pekatariyen
Salbazioko atiak.

JUAN IGNAZIO URANGA.